

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

3236

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, ekonomiaren zenbait sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren oinarri arautzaileak onartzen eta argitaratzen zituen 2022ko martxoaren 8ko Ebazpena aldatzeko dena.

1.– 2022ko maiatzaren 18ko 118. BOEn argitaratuz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretuaren onuradunen tipologia zabaltzen duen maiatzaren 17ko 377/2022 Errege Dekretuak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretuaren I., III. eta IV. eranskinen edukia aldatu du.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren oinarri arautzaileak onartu eta argitaratzen dituen eta horien deialdia egiten duen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko martxoaren 8ko Ebazpenak (2022ko martxoaren 21ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 57. zenbakian) abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretu horretan aurreikusitako baldintzak bete behar dituzenez, pizgarri-programa arautzen duten oinarriak berriz ere aldatzeari ekin behar zaio.

2.– Gainera, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko martxoaren 8ko Ebazpenaren testuan zenbait huts eta omisio hauteman dira, eta zuzendu egin behar dira.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko martxoaren 8ko Ebazpena aldatzea, zeinaren bidez ekonomiaren zenbait sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren oinarri arautzaileak onartzen eta argitaratzen baitira eta horretarako deialdia egiten baita, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. honela aldatu ere:

1.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2022/1320 (23-24/42) orrialdean, «Jarduketa subentzionagarrien betekizunak eta kostu hautagarriak» I. eranskinaren «Jarduketa subentzionagarriak eta bete beharreko betekizun teknikoak» IE.1 atalaren barruan, «Geotermia eta inguruneko Energia (aerotermia eta hidrotermia (aerotermia e hidrotermia))» epigrafean,

Hau dioen tokian:

«– Geotermia eta ingurunekeo Energia (aerotermia eta hidrotermia).

Iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko (EB) 2018/2001 Zuzentarauari jarraikiz, energia geotermikoa, lur solidoaren azalaren azpian bero gisa biltegitratutako energia da. Jarduketa subentzisionagarriak dira zirkuitu irekiko edo itxiko geotermia-instalazioak, baita zuzenean erabiltzeko aprobetxamendu geotermikoko sistemak ere.

Ingurunekeo energia, ingurune konfinatu batean metatuta eta berez dagoen energia termikoa da, ingurunekeo airean biltegitara daitekeena, irteerako airea izan ezik. Bero-ponpa bidezko hidrotermia eta aerotermia deitu ohi zaio normalean.

Bero-ponpa bidezko geotermiako eta ingurunekeo energiako instalazioek (aerotermia eta hidrotermia) 2,5etik gorako urtaroko batez besteko errendimendua eduki beharko dute.

Horrez gain, bero-ponpek bete beharko dituzte 2016ko azaroaren 30eko Batzordearen 2016/2281 Erregelamenduan ezarritako ekodiseinu-errekerimenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EB Zuzentarauak aplikatzen dituenak. Zuzentaru horren arabera esparru bat ezartzen da energiarekin zerikusia duten produktuei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko betekizunak ezartzeko, airea berotzeko produktuei, hozte-prozesuei, tenperatura altuko prozesuak hozteko makinei eta bentilokontektoreei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko betekizunei dagokienez. Horrez gain, Bero Ponpetan erabilitako hozgarriek, gehienez ere, atmosfera berotzeko potentzialaren 675eko balioa izango dute (Atmosfera Berotzeko Potentziala 100 urtera), IPCCren "AR4 Climate Change 2007 The Physical Science Basis" Txostenaren TS.2 Taularen arabera.

Akuiferoetan eragiten duten geotermia-jarduketetarako, urriaren 23ko 2000/60/EB Zuzentaruak betetzen dela bermatuko da, ur-politiken eremuan jarduteko Europar Batasunaren esparru bat ezartzen duena akuiferoei kalte esanguratsurik eragiten ez zaiela ziurtatzeko, uraren kalitatea babestu eta estres hidrikoa saihestearren. Honako hauek ez dira laguntza-programa honen xede izango:

- Eskatutako gutxieneko errendimenduetara iristen ez diren edo errendimenduak ziurtatzen ez dituzten bero-ponpak.
- Hezetasuna kentzeko unitate gisa funtzionatzeko zeregina duten bero-ponpak.
- Hotz industrialak sortzeko ekipak, hau da, elikagaiak edo bestelako produktuak biltegitratu edo izozteko hozkailuei eta hozte-ganberei, itsasoko, lurreko edo aireko garraioan kokatutako hozte-sistemei, zerbitzari-gelei eta data centerrei hotz ematen dieten hozte-sistemak.»

Honako hau adierazi behar du:

«– Geotermia eta ingurunekeo Energia (aerotermia eta hidrotermia).

Iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/2001 Zuzentarauari jarraikiz, energia geotermikoa, lur solidoaren azalaren azpian bero gisa biltegitratutako energia da. Jarduketa subentzisionagarriak dira zirkuitu irekiko edo itxiko geotermia-instalazioak, baita zuzenean erabiltzeko aprobetxamendu geotermikoko sistemak ere.

Inguruneko energia, ingurune konfinatu batean metatuta eta berez dagoen energia termikoa da, inguruneko airean biltegira daitekeena, irteerako airea izan ezik. Bero-ponpa bidezko hidrotermia eta aerotermia deitu ohi zaio normalean.

Bero-ponpa bidezko geotermiako eta inguruneko energiako instalazioek (aerotermia eta hidrotermia) 2,5etik gorako urtaroko batez besteko errendimendua eduki beharko dute bero-aplikazioetarako. Eraikinen klimatizazioan hotza sortzekoak soilik diren aplikazioen kasuan, estatuko edo Europako indarreko araudian ezarritakoa izango da, gutxienez, urtaroko batez besteko errendimendua.

Akuiferoetan eragiten duten geotermia-jarduketetarako, 2000ko urriaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EB Zuzentaraua betetzen dela bermatuko da, ur-politiken eremuan jarduteko Europar Batasunaren esparru bat ezartzen duena akuiferoei kalte esanguratsurik eragiten ez zaiela ziurtatzeko, uraren kalitatea babestu eta estres hidrikoa saihestearren.

Honako hauek ez dira laguntza-programa honen xede izango:

- Eskatutako gutxieneko errendimenduetara iristen ez diren edo errendimenduak ziurtatzen ez dituzten bero-ponpak.
- Hezetasuna kentzeko unitate gisa funtzionatzeko zeregina duten bero-ponpak.
- Hotz industrialak sortzeko ekipoak, hau da, elikagaiak edo bestelako produktuak biltegitratu edo izozteko hozkailuei eta hozte-ganberei, itsasoko, lurreko edo aireko garraioan kokatutako hozte-sistemei, zerbitzari-gelei eta data centerrei hotz ematen dieten hozte-sistemak.»

2.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2022/1320 (39/42) orrialdean, «1. pizgarri-programa: Kostu subentzionarioen definizioa eta laguntzaren kalkulua» epigraferako, «Gehieneko kostu subentzionarioak, erreferentziazko kostuak eta laguntzen zenbatekoa» III. eranskineko «Kostu subentzionarioak eta laguntzen kalkulua» IIIE.2 atalaren barruan,

Hau dioen tokian:

«– Aerotermiako, geotermiako eta hidrotermiako jarduketa estandarretarako, fitxa teknikitik edo fabrikatzailearen zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia izango da instalazioaren Sp potentzia, UNE-EN 14511 arauaren entseguetara jarraituz, hau da, bero-ponpa geotermikoetarako B0W35 berokuntza-potentziaren balioa hartuko da, eta bero-ponpa aerotermikoetarako, berriz, A7W35 berokuntza-potentziaren balioa. Sp potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.»

Honako hau adierazi behar du:

«Aerotermiako, geotermiako eta hidrotermiako ereduak jarduketetarako, instalazioaren Sp potentzia gisa hartuko da, UNE-EN 14511 arauaren entseguetara jarraituz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako potentzia. Sp potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.»

3.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2022/1320 (40/42) orrialdean, «1. pizgarri-programa: Kostu subentzionarioen definizioa eta laguntzaren kalkulua» epigraferako, «Gehieneko kostu subentzionarioak, erreferentziazko kostuak eta laguntzen zenbatekoa» III. eranskineko «Kostu subentzionarioak eta laguntzen kalkulua» IIIE.2 atalaren barruan,

Hau dioen tokian:

«Edozein kasutan ere, hibridazioan parte hartzen duten teknologia desberdinetako zentral guztien potentzien baturak, gehieneko laguntza kalkulatzeari begira, ezin izango du produkzio-potentziako 1 MW-ko muga gainditu, eta, horrekin batera, trukatzeko azpiestazio guztien –berrien edo egun-goen– baturak ere ezin izango du 1 MW-ko muga hori gainditu. Hibridazioa eguzki termikoko tipologiarekin bada, instalazio horren produkzio-potentzia ez da zenbatuko 1 MW-ko muga horri begira.»

Honako hau adierazi behar du:

«Edozein kasutan ere, hibridazioan parte hartzen duten teknologia desberdinetako zentral guztien potentzien baturak, gehieneko laguntza kalkulatzeari begira, ezin izango du produkzio-potentziako MW 1eko muga gainditu, eta, horrekin batera, trukatzeko azpiestazio guztien baturak ere ezin izango du MW 1eko muga hori gainditu. Hibridazioa eguzki termikoko tipologiarekin bada, instalazio horren produkzio-potentzia ez da zenbatuko MW 1eko muga horri begira.»

4.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2022/1320 (41/42) orrialdean, «2. pizgarri-programa: Kostu subentzionagarrien definizioa eta laguntzaren kalkulua» epigrafearen barruan, «Teknologia berriztagarriagatiko jarduketa subentzionagarriak» taula aldatzen da, «Gehieneko kostu subentzionagarriak, erreferentziazko kostuak eta laguntzen zenbatekoa» III. eranskineko «Kostu subentzionagarriak eta laguntzen kalkulua» IIIE.A2 atalaren barruan,

«Teknologia berriztagarriagatiko jarduketa subentzionagarriak.

Jarduketa subentzionagarriak	Ksum kostu subentzionagarri unitario maximoa edo Khum kostu hautagarri unitario maximoa (€/kW)
Instalazio geotermikoak edo hidrotermikoak	2.130
Instalazio aerotermikoak	1.130
Eguzki instalazio termikoa ⁽¹⁾	1.070
Biomasa errekontza-ganbera ⁽²⁾	100
Biomasa-galdarak eta toki-berokuntzako aparatuak ⁽²⁾	500
Banaketako tutuen sare eta truke-azpiestazio berriak garatzea, edo daudenak handitzea sorkuntza-zentral berrietarako edo daudenetarako ⁽³⁾	450

⁽¹⁾ Hotza produzitzeko sistemak energia termikoaren bidez –hala nola adsortzioko, adsortzioko eta abarreko makinak– inkorporatzen badira, % 50ean gehituko da kostu subentzionagarri unitario maximoa.

⁽²⁾ Erregaia % 100 berriztagarria izango da eta ez da baimenduko kimikoki tratatuak izan diren zuretatik datozen erregaia erabiltzea.

⁽³⁾ Truke-potentzian neurtuko da potentzia.

5.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2022/1320 (9/42) orrialdean, 4.3 ataleko lehen paragrafoan:

Hau dioen tokian:

«4.3. Pizgarri-programa honek pizgarri-izaera duenez, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondoren hasitako jarduketak onartuko dira bakarrik 1. programaren kasuan, eta 1124/2021 Errege Dekretua BOEn argitaratu zen dataren (2022ko abenduaren 22a) ondoren hasitakoak 2. programaren kasuan.»

Honako hau adierazi behar du:

«4.3. Pizgarri-programa honek pizgarri-izaera duenez, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondoren hasitako jarduketak onartuko dira bakarrik 1. programaren kasuan, eta 1124/2021 Errege Dekretua BOEn argitaratu zen dataren (2021eko abenduaren 22a) ondoren hasitakoak 2. programaren kasuan.»

6.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2022/1320 (8/42) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileak» 2. oinarrian, 2.7 epigrafe berri bat erantsi da, honako eduki honekin:

«2.7 Udalek, diputazio probintzialek edo erakunde baliokideek, Espainiako udalerrien mankomunitate edo elkarteek, uharteko kabildo eta kontseiluek, eta dagokion tokiko edo autonomia-erkidegoko administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeek eta erakunde publikoek, laguntzan azken hartzaile izateko aukera izango dute, zerbitzu-sektoreko, edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, dagozkion jarduketa subentzisionagarriak gauza ditzaketen beste produkzio-sektore batzuetako instalazioetako jabe diren pertsona juridiko publiko edo pribatuak elkarleen ordezkari gisa, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa bete beharko delarik. Kasu horretan, dagokion eskaera 1. pizgarri-programarako aurkeztu beharko da, eta programa horren muga eta baldintzak aplikatuko dira. Ordezkatutako subjektuen artean diferentziarik bada, jaso beharreko laguntzetan baldintza eta intentsitate desberdinak dakartzatenak, horietako bakoitzerako eskaera independentek formalizatu beharko dira.

Kasu horietan, horiek ordezkatuz diharduen azken hartzaileak aurkeztu beharko d(it)u, ordezkatu bakoitzari legozkiokeen programetarako laguntza-eskaera(k).»

7.– Aipatutako pizgarri-programa arautzen duten Oinarrietako 2022/1320 orrialdean (36/42), «Azken erabiltzaileei eskatu beharreko dokumentazioa» II. eranskineko «Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa» IIE.2 atalaren barruan,

Hau dioen tokian:

«m)»

Honako hau adierazi behar du:

«m) 100.000 eurotik beherako laguntza eman zaien proiektuetarako ezin izango da justifikazio-kontu sinplifikaturik aurkeztu, eta aurreko puntuetan azaldutako justifikazio-dokumentuak aurkezteko betebeharra bete beharko da.»

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Laugarrena.– Ebazteke duden laguntza-eskaerak, eskaera aurkeztean programa arautzeko indarrean dauden oinarriei jarraikiz ebatziko dira, Ebazpen honetan jasota egonik, Programa honen espediente guztiei aplikatzekoak diren alderdi osagarri edo prozedura-alderdi guztiei kalte egin gabe (5. eta 7. aldaketak), laguntza-eskaera aurkeztu zen data edozein izanik ere.

Bosgarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEdo zuzendari nagusiari, EHAAAn argitaratzen den

2022ko uztailaren 15a, ostirala

egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2022ko ekainaren 30a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.